

2023ko abendua

Aldahitz ikerketa

**ULER-SAIOAK
METODOLOGIA**

2020-2021 ARTEAN
EGINDAKO ESPERIENTZIEI
BURUZKO AZTERKETA



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Argitaraldia: 2023ko abendua

Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra

Egileak: Pello Jauregi Etxaniz (UPV-EHU) eta Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)

Osaketa grafikoa: Zirrimarra estudio grafikoa (Andoain)



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-Partekatu Berdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

ULER-SAIOAK METODOLOGIA. ESPERIENTZIAK 2020-2021

Lankidetzan:



- Azpeitiako Udal Euskaltegia
- Bergarako Udal Euskaltegia
- Eibarko Udal Euskaltegia
- Eskoriatzako Udal Euskaltegia
- Oñatiko Udal Euskaltegia
- Pasaiaiko Udal Euskaltegia



- Andoingo AEK Euskaltegia
- Pasaiaiko AEK Euskaltegia
- Sorraluzeko AEK Euskaltegia

- Errenteriako Gureak Fundazioa
- Ibarra Euskara elkarte

ALDAHITZ IKERKETA PROIEKTUKO ERAKUNDEAK

Proiektuan partaide:




Proiektuan partaide eta babesle:



Lankidetzan:



Aurkibidea



1. IKERKETAREN TESTUINGURUA	4
2. ANTOLAKUNTZA	5
3. PRESTAKUNTZA	9
4. IKERKETAREN HELBURUA.....	12
5. DATUEN BILKETA ETA TRESNAK	12
6. UNIBERTSO OSOA, BAJAK ETA ASISTENTZIA	13
7. PARTE HARTZAILEEN EZAUGARRIAK	14
8. AHOZKO ULERMEN-PROBEN EMAITZAK.....	17
8.1. Entzumen-proben bereizketa maila	17
8.2. Unibertso osoa	18
8.3. A1 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak	19
8.4. A2 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak.....	23
9. HAUTEMATE ETA JARRERARI BURUZKO DATUAK.....	24
9.1. Unibertso osoa	25
9.2. A1 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak	26
9.3. A2 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak.....	27
10. ONDORIOAK.....	29
10.1. Ikerketa mailako ondorioak.....	29
10.2. Metodologia testatzearekin loturiko ondorioak	30
11. AURRERA BEGIRAKOAK ETA HOBETZEKOAK.....	31
12. ERANSKINAK	33
1. eranskina: Uler-saioak metodologian formazioa jaso duten kideen zerrenda (kideak - erakundeak - herriak).....	34
2. eranskina: Esperientzien antolaketan sorturiko zalantzak eta erantzunak.....	35
3. eranskina: A1 entzumen-proba	40
4. eranskina: A2 entzumen-proba.....	46
5. eranskina: Hautemate eta jarrerari buruzko galdetegia.....	52

1.

IKERKETAREN TESTUINGURUA

2020ko ekainean, “Uler-saioak metodologia. Ulermena garatzeko estrategia soziolinguistikoa” izeneko liburua argitaratu zuen Soziolinguistika Klusterrak. Bertan, ahozkoaren ulermenaren garrantzia berriaz azpimarratu genuen, bai ikuspegi psikolinguistikotik begiratuta (hizkuntzaren jabeakuntza-prozesua elikatzeko garaian), baina baita ikuspegi soziolinguistikotik aztertuta ere (hizkuntza sozialki biziberritzeko bidean). Lanketa teoriko horrekin batera, euskara ulertzeko gai ez diren pertsonen ahozkoaren ulermena garatzeko 60 orduko programazio xehea ere aurkeztu genuen.

Programazio didaktikoa, ordea, ez zegoen oraindik datu enpirikoetan oinarrituta, uste teorikoetan baizik. Argitalpen horrek, bada, erronka berria zekarren berekin: esperimentazio-aldia abiatu beharra, hain zuzen, helburuak eta uste teorikoak praktikan testatu ahal izateko.

Azken bi urteotan, gogoz ekin dio Soziolinguistika Klusterrak esperimentazio ildo honi, eta hainbat herritako eta erakundetako arduradun eta teknikarirekin elkarkidetzan ekintza-iker-kuntza ziklo oso bat antolatzeke aukera izan du.

Lehen urratsa 2020. urtean eman genuen Pasaiaiko udalerrian (Gipuzkoa), udaleko euskara arduradunek eta teknikariek ikerketa egiteko aukera emanda¹. Urtebete beranduago, 2021. urtean, beste zazpi esperientzia egin ditugu Gipuzkoako sei herritan (Andoain, Azpeitia, Bergara, Eibar, Eskoriatza eta Azpeitia), Gipuzkoako Foru Aldundiaren bultzadaz, eta herri horietako udaleko euskara teknikari eta hainbat euskara elkarteren arduradunekin elkarlanean.

Esperientzia horietako batzuk Udal Euskaltegietan eta beste batzuk AEK Euskaltegietan egin dira bertako irakasleek kudeatuta. Soziolinguistika Klusterra arduratu da irakasle horiek prestatzeaz, **Uler-saioek** eskatutako moldeari egoki zitezen.

55 ikaslek hartu dute parte, guztira, metodologia testatzeko egindako esperientzia hauetan.

HABEk diruz lagundu du esperientzia hauek finantzatzen.

¹ *Uler-saioak metodologia* 2020ko ekainean argitaratu zuen Soziolinguistika Klusterrak, eta horren ondoren ekin genion *Uler-saioak metodologiaren* gaineko esperientziak antolatzeari. Horren aurretik, dena den, Pello Jauregik berak Pasaiaiko Udalaren babesarekin antolatu zuen lehen proba pilotua, bi talderekin. 2020ko udaberrian egin zen antolaketaren prozesua eta 2020ko urrian saioak abiatu ikasleekin. “Oinaldea” izenarekin aurkeztu zen ekimen hori Pasaiaiko udallean. Geroztik, egoki ikusi dugu lehen bi esperientzia horiek 2021eko beste zazpiekin batera aztertzea hemen.

1. taula: 2020-2021 artean egindako esperientziak

Urtea	Herria	Euskaltegia eta irakaslea	Ikasle kopurua
2020	Pasaia (I)	Udal euskaltegia (Izaskun Sagastume)	6
2020	Pasaia (II)	AEK euskaltegia (Raul Perez)	3
2021	Andoain	AEK euskaltegia (Idoia Bengoetxea)	6
2021	Azpeitia (I)	Udal euskaltegia (Kepa Urbietta)	7
2021	Azpeitia (II)	Udal euskaltegia (Imanol Amiano)	7
2021	Bergara	Udal euskaltegia (Alex Labaien)	8
2021	Eibar	Udal euskaltegia (Aitor Puy)	7
2021	Eskoriatza	Udal euskaltegia (Karmele Agirregabiria)	7
2021	Soraluze	AEK euskaltegia (Oihana Lado)	4

Bi urteotako emaitza enpirikoak aurkeztea da txosten honen xede nagusia.

2. ANTOLAKUNTZA

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa hau bideratzeko azpitalde bat osatu zuen Aldahitz Egitasmoaren barruan, Pello Jauregi EHUko irakaslearen zuzendaritzapean. Taldea honako partaide hauek osatu zuten: Sonia Isasi (HPS), Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Jone Urkizu (EMUN).

Aldahitz proiektuko Garapen Taldean esperientzia hauek egiteko aukerak baloratu ondoren, batetik, Gipuzkoako udalei egin zitzairen parte hartzeko deialdia, euskara-zerbitzuen bidez. Bestetik, lantokietan euskara-planak kudeatzen dituzten Aldahitzeko aholkularitza-enpresen bitartez ere esperientzietarako guneak lokalizatzeko pausoak eman genituen. Gipuzkoako udalen kasuan, Gipuzkoako Aldundiak berak luzatu zuen deialdia udaletako euskara-zerbitzuko arduradunen artean. Aholkularitza enpresen kasuan, Soziolinguistika Klusterraren antolakuntza bera baliatu genuen gonbitea zabaltzeko. Txosten bat zabaldu zitzairen guztiei, **Uler-saioak metodologiaren** eta 2021-2022ko esperientzietan (ikerketan) parte hartzeko aukeraren berri emanaz ("Uler-saioak eta Ulerrizketa babestua metodologiak. 2021 eta 2022ko ikerketan parte hartzeko aukera" izeneko txostena).

Interes handia sumatu genuen bazterretan deialdia zabaldu bezain laster. Fitxa-eskaera ugari jaso genituen: 14 udal (Andoain, Eibar, Aretxabaleta, Zarautz, Ibarra, Ordizia, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Eskoriatza, Oñati, Pasaia, Soraluze eta Lasarte-Oria) eta 3 aholkularitza-enpresa (Emun, AEK-Ahize eta Artez).

Ondoren, esperientziak abiatzeko aurreneko urratsak emateari heldu genion:

- 1) balizko ikasleak identifikatu
- 2) irakasle edo trebatzaileak lotu
- 3) finantziabide kontuak argitu.

Kontu hauen inguruko zalantzak argitzeari begira txosten bat zabaldu genuen, gida izatea helburu zuena (ikus 2. eranskinean, esperientzien antolaketa-prozesu horretan sorturiko zenbait zalantza).

Eragileak lanean hasi bezain laster berehala konturatu ginen hainbat joerez:

- 1) Eragileak identifikatzen ari ziren xede-talde gehienek etorkinen multzorantza jotzen zuten, baina oso talde guxti zeuden lantokietan kokatuak. Hori ulertzekoa zen, gehienbat eragileak udalak izanik, lan eremuetara iristeko gaitasuna mugatua baitzuten. Aholkularitza-enpresen jardunak ez zuen lagundu joera hau orekatzen, gaitasun kontuak zirela eta, **Ulerriketa Babesturako** hautagai gehiago aurkitzen baitzituzten **Uler-saio**etarako baino. Honek erronka gehiagarria iragartzen zion ikerketari, zeren gogoratzekoa baita Aldahitz ikerketa-proiektuko metodologiak lan-munduan ari garela garatzen nagusiki. Garrantzitsua zen guretzat, beraz, **Uler-saioak** metodologiaren esperientzia pilotuak lantokien testuinguruan ere egin ahal izatea. Egia da, era berean, **Uler-saioak** metodologiak lan-eremuaz haratago zabaltzeko bokazioa ere baduela. Baina, aurreko lanek erakusten ziguten aurrean izan genezakeen lagina etorkinen multzora oso makurtuta eta lan mundutik oso baztertuta egon zitekeela. Desoreka, finean.
- 2) Eragile gehienek esperientzien ardura euskaltegien eta irakasleen gain uztera jotzen zuten. Hori gure espektatibaren barruan sartzen zen. Alderdi horretatik ez zegoen ezusterik. Gogoratu behar da, hala ere, ikerketaren helburua ere bazela irakasle ez ziren teknikari eta trebatzaileak prestatzea **Uler-saioak** eramateko, haien jarduna nolakoa zen aztertze-ko gogo berezia baikenuen. Alderdi horretatik, lagina egokia izan zitekeela ikusi genuen, zeren gutxienez baziren hiru tokitan **Uler-saioak** irakasle ez ziren teknikarien bidez kudeatzeko (Ibarra, Lasarte-Oria eta AEK-Ahize). Kopuru txiki horrek aski ongi bete zezakeen gure ikerketaren helburua.
- 3) Esperientzia hauen antolaketan lankide izan ditugun artean, zalantza edo kezketako bat izan da irakasle-trebatzaileen lanaren finantzazioarena. Askok adierazi zuten finantzabidea udalen esku gelditu behar izanez gero ez luketela ikerketan parte hartzeko modurik izango. Ikerketarako deialdia luzatu genien unean ez zegoen oraindik lotuta HABEren balizko diru-laguntzarena, eta hori tentsio puntu iraunkorra izan zen antolakuntzaren prozesu osoan zehar.

Lehehengo hurbilpenaren ondoren, udako geldialdia etorri zen. Hura bukatu eta irailean, berri heldu genion esperientziak antolatzeari. Ordurako, jada lotuta zeuden **Uler-saio**etan ariko liratekeen edo behintzat ari zitezkeen irakasle eta trebatzaileak baldin eta taldeak aterako balira. Haiekin prestakuntza-saio batzuk antolatu genituen (horren gaineko xehetasun guztiak hurrengo atalean), **Uler-saio**en metodologian trebatzeko. Irakasle eta trebatzaile horiek arduratu ziren, era berean, udal-teknikariekin batera, taldeak osatzeaz: balizko ikasleei informazioa zabaldu, ikasleak bildu eta ulermen-froga egin.

Hainbat tokitan taldeak osatzea lortu zuten eta beste hainbatetan ez. Hona hemen koadro sinoptiko bat egoeraren berri ematen duena:

2. taula: herriz herri, esperientziak abiatu diren gunek eta abiatu ez direnak

Herria edo erakundea	Esperientziak abiatu	Arrazoia
Andoain	BAI	
Azpeitia	BAI	
Bergara	BAI	
Eibar	BAI	
Eskoriatza	BAI	
Soraluze	BAI	
Oñati	BAI/EZ	Hasi eta hirugarren saioan bertan behera utzi zuten ikasleen asistentzia faltagatik. Izena emanda zeuden 5 ikasleetatik 2 agertu ziren lehen saiora, eta inor ez bigarreneira.
Aretxabaleta	EZ	Begiz jota zuten taldeak (Aniztasun Egitasmoko kideak) ez zuen baldintzarik betetzen (kide gutxi animatu ziren, asistentzia ezin bermatu, ordutegiarekin arazoak...)
Zarautz	EZ	Bertan behera utzi zuten beren partaidetza euskaltegiko irakasleek egoki ikusten ez zutelako taldea oraindik osatu gabe egonda prestakuntzari heldu behar izatea.
Ibarra	EZ	Barne kontuak zirela eta, lotuta zeukaten trebatzaileak (Euskara elkarteko teknikari bat) bere lana utzi zuen eta ez zuten ordezkorik.
Ordizia	EZ	Aurrez izena emanda zeudenak (uztailean) ez ziren bilerara agertu (irailean).

Arrasate	EZ	Begiz jota zuten taldea (errefortzu eskolak jasotzen dituzten haur eta nerabe etorkinen gurasoak) ezin da abiatu ikerketaren egutegian (urria hasieran).
Pasaia	EZ	Ikastetxeetako gurasoen artean zabalduko deialdiak ez zuen arrakasta handirik izan, eta bilerara pertsona bakarra agertu zen.
Lasarte-Oria	EZ	Bildutako taldea txikiegia zen (bi kide).
Emun	EZ	Ez zuten perfil horretarako kiderik aurkitu, baina bai Ulerrizketa Babesturako. Itxarongo zutela, zioten, bigarren metodologia abiatu arte.
AEK-Ahize	EZ	Bildutako taldea txikiegia zen (bi kide).
Artez	EZ	Begiz jota zuten taldearen eta lantokiaren ezaugarrien arabera (Ospitale bateko langileak), ezin zuten ikerketak jarritako epeak eta erritmoak bete.

Beherago, 1. eranskinean zerrendatuta daude esperientzia hauetarako **Uler-saioak** metodologiaren gaineko formazioa jaso zuten kideen zerrenda. Horietako batzuk, formazioa jaso arren, gero ezin izan zuten esperientzia egin, gaineko 2. taulan adierazten diren arrazoiengatik.

Hasierako joerari eutsiz, bukaeran ere etorkinen taldeak izan ziren abiatu ziren guztiak. Eta, atzekoz aurrera, lan munduari lotutako talderik ez zen sortu.

Arazo handiak sortu ziren parte hartzeko motibazioari eusteko, eta une batean nolabaiteko gogoia adierazi zutenek atzera egin zuten handik denbora batera taldeak dagoeneko osatu behar zirenean. Bestalde, asistentziarekin, erritmoarekin edota egutegiarekin arazo ugari sortu ziren. Pentsa izatekoa da horietako asko loturik egongo zirela etorkinen bizi eta lan baldintza prekario eta aldakorrekin.

Hasieran, irakasle ez ziren teknikariekin aritzeko antzematen genuen aukera galdu genuen bukaeran. Halako teknikariak zituzten hiru tokitan (Ibarra, Lasarte-Oria eta AEK-Ahizek kudeatutako Gure Fundazioa) ez zen bukaeran talderik osatu. Beraz, alderdi hori esperimentatzeko aukera galdu genuen.

Finantzabideari dagokionez, HABEren aldeko iritzia jaso genuen esperientziak abiatzeko aste gutxi falta zirela. Erabaki horren arabera, HABEk bere gain hartuko zituen euskaltegietan egiten ziren esperientzien gastuak (irakasleen jardunari dagokionez), baina ez euskaltegietatik kanpo egiten zirenen esperientzien gastuak.

3.

PRESTAKUNTZA

Azkenean esperientzia guztiak euskaltegietako irakasleek gidatutakoak izan baziren ere, hasieran trebatzailearen figura era aintzat hartu genuen. Gure ustez, irakasle izan gabe, erakunde bateko edozein teknikari gauza izan zitekeen **Uler-saioez** arduratzeko, baldin eta *ulerrizketa-kompetentziaren* jabe bazen². Gure hizkeran, ulerrizketa-kompetentzia da pertsona batek bere hitz egiteko modua errazteko, egokitze eta moldatzeko erakusten duen gaitasuna edo erraztasuna. Antolatzaileei laguntza eskaini zitzaizen halako trebatzaileak aurkitu ahal izateko. Izan ere, ikerketa taldea prest agertu zen, erakunde batek pertsona baten egokitasunaz zalantzak edukiz gero, taldeak pertsona haren ulerrizketa-kompetentzia ahozko proba baten bidez egiaztatzeke.

Behin herrietatik irakasle edo trebatzaileen zerrenda jaso ondoren, formazio-ziklo bat abiatu genuen **Uler-saioak** metodologiaren esperientzia hauek hasi baino hiru aste lehenago.

Honako formato honetan egin genuen:

- 1) Aurkezpen orokorra (bilera online), formazioaren egitura eta materialak aurkezteko
- 2) Materialaren lanketa indibiduala, nork bere etxean. Honako material hauek aztertu behar izan zituzten parte hartzaileek:

- Jauregi, P. (2020). *Uler-saioak metodologia. Ulermena garatzeko estrategia soziolinguistikoa*. Soziolinguistika Klusterra: Andoain, liburuaren 3. kapitulua (Uler-saioak metodologia, egunez egun)
- Berriaz formazio honetarako Soziolinguistika Klusterrak prestatutako bideoak.

Bi euskarri mota landu ziren formaziorako, guztiak ere Vimeo plataforman maila pribatuan jasoak. Alde batetik "formazio pilulak" prestatu ziren. Lau bideo dira, *Uler-saioak metodologia*-ren nondik norako nagusiak kokatzen dituztenak: metodologiaren kokapena **Aldahitz** lkerketa proiektuaren lanaren baitan, ideia teoriko nagusiak zein metodologiaren oinarriko ekintza didaktikoak.

2 *Ulerrizketa-kompetentziaren* inguruko xehetasunak kontsulta litezke [Ulerrizketa metodologia](#) izeneko argitalpenean (2019, Jauregi P. eta Suberbiola, P., Soziolinguistika Klusterra). Ulerrizketa-kompetentziak zer diren ongi ulertzeko, lan osoa kontsulta liteke. Dena den, lanaren 3. atalean ("Alderdi metodologikoak", 32-71. or.) ditugu kompetentzia horiek zehatz azalduta. Bertsio laburrago bat nahi izanez gero, berriz, laburtuta eta modu eskematikoan ere eskaintzen dira kompetentzia horiek 3.8 atalean (64-69. or.).

Ondorengo taulan zehazten dira bideo horien iraupena eta sareko helbidea:³

3. taula: formaziorako bideoak I. Sareko helbideak eta iraupenak

	bideoaren izena	sareko helbidea	iraupena
1	Aurkezpena	https://vimeo.com/605471780	13:25
2	Idea teoriko nagusiak	https://vimeo.com/605471921	18:36
3	Uler-saioak	https://vimeo.com/605471981	18:50
4	Oinarrizko ekintza didaktikoak	https://vimeo.com/605472079	15:34

Horrez gain, formaziorako “sketch”-ak landu ziren eta bideoan jaso. Bost bideo dira, trebatzaileek gelan erabiliko dituzten teknika didaktikoak nola erabili modu praktikoa erakusten dutenak. Ondorengo taulan daude jasota bost bideo horien xehetasunak:

4. taula: formaziorako bideoak II. Sareko helbideak eta iraupenak

	bideoaren izena	sareko helbidea	iraupena
1	Galdegurpila	https://vimeo.com/605461519	10:37
2	Aginduak bete	https://vimeo.com/605461624	08:31
3	Istorioak galdetu	https://vimeo.com/605461672	16:30
4	Albisteak kontatu	https://vimeo.com/605461793	06:31
5	Bideoak kontatu	https://vimeo.com/605461855	11:48

- 3) Materialen azterketatik sortutako zalantzak bildu fitxa batean eta ikerketa taldeari bidali.
- 4) Ordubeteko tutoretza saioak, banan bana, parte hartzaile bakoitzarekin. Eginkizuna: fitxan agerturiko zalantzak argitzea.

Fase honetan 15 irakaslek eta 3 trebatzailek hartu zuten parte, hau da: gerora esperientziak egin zituztenak baino kopuru handiagoa. Izan ere, hainbat herritan, badaezpada ere, irakasle bat baino gehiago prestatzea erabaki zuten, tartean ez baitzekiten batetik uler-saioetarako talderik osatuko ote zuten, eta bestetik ez baitzekiten euskaltegietako talde guztiak nola banatuko zituzten irakasleen artean.

³ Bideo hauek *Uler-saioak metodologiaren* formaziorako baliabideak dira. Momentuz (metodologia finkatuago eta testatuago egon arte) Aldahitz Ikerketa proiektuan lankide diren erakundeen eskura daude soilik, ez modu irekian, Soziolinguistika Klusterreko argitalpen, bideo eta material guztiak egon ohi diren bezala.

Fase hori bukatuta, formazioa bigarren ziklo bati lotu zitzaien, funtsean praktikari lotutakoa. Honetan soilik hartu zuten parte uler-saioetako esperientziak abiatu zituzten herriek eta, zehazki, talde horietako irakasleek. Puntu nagusiak honako hauek izan ziren:

- 1) Irakasle bakoitzak ordu erdiko grabazioa egingo zuen bere talde errealean "istorioak galdetu" teknika nagusia aplikatzen ari ziren uneren batean.
- 2) Tutoretza saioak egin, banan bana, irakasle bakoitzarekin, bideoarenak aztertzeko. Hala programatuta bazegoen ere, eta irakasleek grabazioak egin zituzten arren, formazioaren atal hau egokitu egin behar izan genuen.⁴
- 3) Jarraipen bilerak prozesuan zehar agerturiko zalantzak eta arazoak argitzeko. Bilera hauek irakasle guztien artekoak eta modu telematikoan eginda. Hiru bilera egin ziren guztira.

Prestakuntzarako formatu honek, oro har, funtzionatu badu ere, hutsune batzuk ere ikusi dizkiogu eta, hortaz, badira hobetu beharrekoak. Nagusiki honako hauek aipatuko genituzke:

- 1) Komeniko litzateke ebaluazio-sistema teoriko-praktikoa gehiago zehaztea irakasleek eskuratutako ezagutza eta trebatasuna hobeto egiaztatzeko. Agian, ez da aski irakasleen zalantzetan bakarrik edo nagusiki oinarritzea ebaluazio-prozesua.
- 2) Komeniko litzateke online saioekin batera, aurrez aurreko saioen bat gehitzea, bereziki oinarritzko printzipio metodologikoei buruz sakontasunez eztabaidatu ahal izateko.
- 3) Jarraipen sistema estuago eta pertsonalatuagoa izatea beharrezkoa litzateke. Jarraipen-sistema, gure ikuspegian, ez da koordinazio lan hutsa; aitzitik, formazioaren atal praktikoaren tresna garrantzitsutzat har daiteke. Beraz, irakasle bakoitzaren zalantza eta arazo errealak ezagutu eta gainditzen laguntzeko hari jarri behar zaio arreta, eta hori zaila da talde berean irakasle asko dagoenean. Maiztasunari dagokionez, 10 orduko, gutxienez, bildu beharko lirateke irakaslea eta formatzailea (programazioaren erritmoarekin bat egingo, zeren 10 orduko 6 ziklotan banatuta baitago).

Prestakuntzarako 2020-2021 esperientzia hauetan erabili dugun formatuari sumatu dizkiogun hutsune eta hobetzeko hauek kontuan izanik, pentsa izatekoa da irakasle guztiek ez zutela aukerarik izango **Uler-saioak metodologia** ongi barneratzera eta menperatzera iristeko. Kontuan hartu behar genuke hori ere esperientzien emaitzak eta ondorioak baloratzeko garaian.

⁴ Ezuste handi batek behartu gintuen formazioaren atal hau bertan behera uztera. Izan ere, formazio-arduradunak osasun arazo larriak izan eta baja luzea hartu behar izan zuen.

4.

IKERKETAREN HELBURUA

- a) Helburu nagusia da testatzea zenbateko aurrerapena egiten duten ahozkoaren ulermen euskaraz oso gutxi edo batere ere ulertzen ez duten pertsonak, **Uler-saioak metodologian** oinarritutako 60 orduko programazioa jaso ondoren.
- b) Bigarren helburua da neurtzea parte hartzaileen autopertzepzioa eta jarrera euskarazko harreman errealetan aritzeko, *Uler-saioak* esperientzietan jardun eta gero.

5.

DATUEN BILKETA ETA TRESNAK

Esperientziak abiatu aurretik eta bukatu bezain laster bildu ditugu datuak. "Aurretik-ondoren" diseinuaren bidez aztertu nahi izan dugu tarte hartan izandako bilakaera (gaitasun eta jarrera alderdian) nolakoa izan den.

Ahozkoaren ulermenari dagokionez, A1 eta A2 mailako ulermen-probak (entzungaiak eta testak) erabili izan dira. Zehazki, HABEk [Ikasbilen](#) argitara emanda dituen A1 eta A2 mailako ulermen-probak erabili ditugu oinarri gisa gurea prestatzeko (ikusirik erabilitako ereduak 3. eta 4. eranskinetan). Jatorrizko probei honako aldaketa hauek eragin dizkiegu, **Uler-saioak** metodologiaren ezaugarriak aintzat hartuta:

- a) Jatorrizkoan euskaraz dauden erantzun-orriak (testak) gaztelaniara itzuli ditugu. Metodologiaren helburu eta jarduerarekiko koherentziaz jokatzeko eskatzen zuen horrela egitea. Izan ere, ahozkoaren ulermen hutsean zentratzen baita metodologia, eta ez baita idatzizkoaren ulermenik (irakurmena) berariaz lantzen metodologiaren jardueretan.
- b) A1 proban, galdera bat eta esaldi bat aldatu ditugu jatorrizkoaren aldean, entzumena neurtzeko egokiagoak direlakoan. Bestalde, A1 mailako 4. ariketan jatorrizko irudien ordez hitzak erabili ditugu, formatua arintzeaz gain, entzumena neurtzeko ere aski zirelakoan.

Alderdi subjektiboei dagokienez, galdetegi bat erabili genuen, non galdetzen genien parte hartzaileei nola hautematen zuten beren ulermen-maila bi solaskide motarekin aritzerakoan: hizkera errazten duen solaskidearekin, batetik, eta hizkera arrunta eta moldatu gabe erabiltzen duen solaskidearekin, bestetik. Galdetu ere egiten genuen zein gogo-maila zeukaten erabateko ala besteko solaskiderek aritzeko kaleko edo laneko komunikazio-egoera errealetan (ikusirik erabilitako galdetegia 5. eranskinean).

6.

UNIBERTSO OSOA, BAJAK ETA ASISTENTZIA

Abiatu ziren 55 ikasleetatik 39k bukatu dute prozesu osoa, eta hasieran edo erdibidean utzita-koak 16 izan dira. Ehuneko eskala batean adierazita, %70,9k bukatu du prozesua, eta %29,1ek utzi du bukatu baino lehen.

Hona hemen datuak esperientziaz esperientzia xeheturik:

5. taula: bukatutakoak eta bajak


Herria	Hasitakoak	Bajak	Bukatutakoak
Pasaia (I)	6	2	4
Pasaia (II)	3	0	3
Andoain	6	3	3
Azpeitia (I)	7	2	5
Azpeitia (II)	7	0	7
Bergara	8	2	6
Eibar	7	4	3
Eskoriatza	7	3	4
Soraluze	4	0	4
Guztira	55	16	39
Ehunekotan	100	29,1	70,9

Baja gehienak lehenengo asteetan gertatu izan dira. Eta lanari lotutako kontuak izan dira gehienetan ikasleek bajarako aipatutako arrazoiak. Gure unibertsoan langile atzerritarren eta lan prekarioetan dabilzanen kopurua oso altua izanik, lanen aldaketak edo ordutegien aldaketak maiz eman dira, eta seguruenik horrek ekarri du askotan ikasleek **Uler-saio**ekin jarraitu ezin izatea.

Eibarreko kasuan, lau baja izan ziren ikasleak jada erdibidean zeudenean arrazoi estruktural batzuk zirela medio. Izan ere, Eibarreko esperientzia lanbide heziketako eskola batean antolatuta zegoen, eta urtarrilean ikasgune hartan irakasgai batzuk bukatu eta ordutegiak aldatzarekin batera, **Uler-saioak** desegoki gertatu ziren ikasle askorentzat (ohiko eskolarik eduki ez, eta Uler-saioetara espreski etorri beharra kanpoko herri batetik). Haren ondorioz, kolpe batez utzi zuten lau lagunek.

Asistentziari dagokionez, batezbesteko datuak dio programatutako 60 orduetatik 46 ordu eman dituztela (%76,7) **Uler-saio**etan prozesua bururaino eraman dutenek.

1. grafikoa: asistentzia-orduak eta galdutakoak



7.

PARTE HARTZAILEEN EZAUGARRIAK

Parte hartzaileen azterketan murgildu aurretik, beharrezkoa da argitzea datuen bilketan izan niko hainbat intzidentzia. Bada, prozesu osoa 39 ikaslek egin badute ere, ezin izan ditugu ikasle guztien entzumen-probak une egokian jaso. Hala gertatu da lau kasutan (Azpeitian 2, Bergaran 1 eta Soraluzen 1). Lau ikasle horien daturen bat falta dugu hasieran edo bukaeran entzumen-probari dagokionez, eta, hortaz, ezin dugu haien datuen serie tenporal osoa eskaini. Horregatik, erabaki dugu parte hartzaileen azterketa hau egitea soilik datuen serie osoa duten 35 ikasleekin. Halaxe egingo dugu, beraz, hemendik aurrerako azterketa guztian.

Kontuan hartuko dugun lehen ezaugarria parte hartzaileen adina da. Batezbesteko, 41 urteko adina du gure unibertsoak. Kategorietan sailkatuz gero, 40 urtetik beherakoak nagusitzen dira (%60 dira). Bigarren multzorik handiena 40-60 urteko bitartekoak dira (%25,7). Beraz, aski heldu-gazteak dira gure esperientzietan ibilitakoak.

6. taula: Adina

	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
40tik behera	21	60
40-60 tartea	9	25,7
60tik gora	5	14,3
Guztira	35	100

Sexuari dagokionez, emakume gehiago (%68,6) izan dira gizonak baino (%31,4). Bi multzoren arteko proportzioa begiratu gero, gainera, guztiz nabarmena izan da emakumeen aldeko proportzioa.

7. taula: Sexua

	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
Emakumea	24	68,6
Gizona	11	31,4
Guztira	35	100

Jaioterria aztertuta, hego amerikarrek osatzen dute multzorik handiena (%37,1), ondoren afrikarrek (%25,7) eta hirugarrenik espainiarrek (%22,9).

8. taula: Jaioterria

	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
Euskal Herria	2	5,7
Espainia	8	22,9
Europa	2	5,7
Hego Amerika	13	37,1
Afrika	9	25,7
Asia	1	2,9
Guztira	35	100

Ikasketei dagokienez, goi mailako ikasketarik ez duten pertsonak nagusitzen dira parte hartzaileen artean, nahiz eta ez diren gutxi unibertsitate ikasketak egin dituztela aitortzen dutenak (%31,4).

9. taula: Ikasketak

	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
Ikasketarik ez	2	5,7
Lehen Hezkuntza	5	14,3
Bigarren Hezkuntza	9	25,7
Lanbide Heziketa	8	22,9
Unibertsitatea	11	31,4
Guztira	35	100

Ez dago parte hartzailerik eskolan euskaraz ezer jaso duenik, erraz uler daitekeenez, bestalde, bi parte hartzaile izan ezik gainerako guztiak Euskal Herritik kanpo jaioak izan baitira.

10. taula: Euskara eskolan jaso

	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
Ezer ere ez	35	100
A eredua	0	0
B eredua	0	0
D eredua	0	0
Guztira	35	100

Era berean, bi parte hartzaile izan ezik gainerakoek ez dute euskaltegietan inoiz saiakerarik egin euskaraz ikasteko. Euskaltegietan inoiz saiatu diren bi horiek hilabete bat- bi hilabeteko tartea baino ez zutela egin diote.

11. taula: Euskaltegietan aritu izana

Euskaltegietan aritu izana	Parte hartzaileak	Proportzioa (%)
Ez	33	94,3
Hilabete gutxi batzuk	2	5,7
Urtebete	0	0,0
Bi urte	0	0,0
Guztira	35	100

Beraz, joera nagusiak jasoz gero, gure argazkian ikusten dugu nagusitzen direla heldu-gazteak, emakumeak, Europatik kanpoko atzeritararak, unibertsitatek beherako prestakuntza dutenak eta euskararekin modu formalean inongo harremanik izan ez dutenak (ez eskolaren ez euskaltegien bidez).

8.

AHOZKO ULERMEN-PROBEN EMAITZAK**8.1.- Entzumen-proben bereizketa maila**

Interesgarria iruditu zaigu, probetan lorturiko emaitzak ezagutzera eman aurretik, aztertzea proba bakoitzaren ezaugarri metodologikoak.

Aukera izan dugu konparatzeko pertsona batek nola puntuatzen duen A1 proban eta A2 proban, une jakin batean. Azterketa konparatibo hori egiteko, ikasle bakoitzaren datuak ditugu bai hasieran eta bai bukaeran.

Espero izatekoa da A2 probak A1 probak baino zailtasun handiagoa eduki beharko lukeela pertsona batentzat, pertsona horrek probak une berean egiten dituenean, baldin eta probek ongi bereizten badute ikasleen gaitasuna.

Gure azterketak, ordea, datu bitxiak ematen ditu.

Hiru kategoria osatu ditugu:

- 1) "Hobeto A1": kasu honetan ikasleak A1 proba A2 proba baino hobeto egin du, probak jarraian egin dituenean. "Hobeto" esan nahi du, bi proben emaitza ehunekotara eramanda (%), 5 puntutik gorako aldea dagoela bi emaitzen artean.
- 2) "Hobeto A2": kasu honetan ikasleak A2 proba A1 proba baino hobeto egin du, probak jarraian egin dituenean. "Hobeto" esan nahi du, bi proben emaitza ehunekotara eramanda (%), 5 puntutik gorako aldea dagoela bi emaitzen artean.
- 3) "Berdintsu": kasu honetan ikasleak berdintsu egin ditu A1 eta A2 probak, jarraian egin dituenean. "Berdintsu" esan nahi du bi proben artean 5 puntu edo gutxiagoko tartea dagoela.

12. taula: A1-A2 proben arteko alderatzea

	Hasieran	Bukaeran	Guztira
Hobeto A1	37,1	48,6	42,9
Hobeto A2	31,4	20,0	25,7
Berdintsu	31,4	31,4	31,4
Guztira	100,0	100,0	100,0

Kasuen %42,9etan ematen da esperotako logika, ikasleek puntuazio hobetoak ateratzen dituztelako A1 proban A2 proban baino. Baina beste bi kategorien bidez emaitza kontra-intuitiboak jasotzen ditugu, ikasle horientzat A2 proba ez baita A1 proba baino zailagoa izan. Ez dugu ahaztu behar kategorია kontra-intuitibo hauetan kokatzen direla ikasle gehienak (%57,1), eta, beraz, ez gara kasu bakan eta bereziet ari, joera orokor batez baizik.

Gure ustez, arrazoa bila daiteke A1 probaren zailtasun mailan. Baliteke proba horrek maila altuagoa edukitzea ikasleen gaitasunetik espero daitekeena baino. Iradokiko genuke gehiegizko zailtasun horren jatorria probako 2. ariketa izan daitekeela, zailtasun handiak sumatu baititugu ikasleen artean ariketa hori zuzen erantzuteko.

8.2.- Unibertso osoa

Hurrengo taulak adierazten du zenbat lagunek gainditu dituzten A1 edota A2 entzumen-probak hasieran eta bukaeran. Datuok kopuru absolutuetan eta ehunekotan daude emanda.

Proba batean erantzun guztien erdia edo gehiago erantzun zuzenak izan direnean proba gaindituzat hartu dugu, euskaltegietan ohikoa den ebaluazio-irizpidea aintzat hartuta.

13. taula: A1 edota A2 probak gainditu dituztenak

	Hasieran		Bukaeran		Aldea	
	Ikasle kopurua	Ehunekoa	Ikasle kopurua	Ehunekoa	Ikasle kopurua	Ehunekoa
A1 proba	7	20	25	71,4	18	51,4
A2 proba	3	8,6	21	60	18	51,4

Datu hauen argitan, parte hartzaileen %20k hasieran jada gainditu zuen A1 entzumen-proba. **Uler-saioak** bukatutakoan, ordea, %71,4ra igo da proba gainditu dutenen proportzioa. Gogoratu beharra dago aztertutako unibertsoa 35 lagunek osatzen dutela.

A2 entzumen-probari erreparatu gero, oso gutxi ziren hasieran A2 mailako proba gainditu zuten kideak: %8,6 besterik ez. Ordea, **Uler-saioak** bukatutakoan A2 entzumen-proba gainditu zutenen proportzioa %60ra igo da.

Datu hauetatik abiatuta, kalkula dezakegu zenbatekoa izan den emankortasun-tasa parte hartzaileek A1 eta A2 proben aurrean erakutsi dutena. Horretarako, hasierako neurketan probak gainditu gabeak bakarrik aintzat hartu beharko liriateke, eta, hortaz, kalkulatik baztertu beharko liriateke hasierako neurketan probak dagoeneko gainditu zituztenak (A1 probaren kasuan parte hartzaileen %20, eta A2 proban %8,6: ikus 13. taula). Emaitzak 14. taulan daude adierazita.

14. taula: A1 eta A2 entzumen-probekiko emankortasun-tasa

	Emankortasun-tasa (%)
A1 proba	64,2
A2 proba	56,2

Emankortasun-tasa hauek honela irakurri behar dira:

- 1) **Uler-saio**etara etorritakoan, A1 entzumen-proba gainditzen ez zuten parte hartzaileen %64,2k lortu du proba bera gainditzea **Uler-saioak** bukatutakoan.
- 2) **Uler-saio**etara etorritakoan, A2 entzumen-proba gainditzen ez zuten parte hartzaileen %56,2k lortu du proba bera gainditzea **Uler-saioak** bukatutakoan.

8.3.- A1 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak

Uler-saioak bukatutakoan A1 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak beren artean alderatu nahi ditugu, emaitzetan hainbat aldagairekin loturarik ikus ote daitekeen jakitearren. Hortaz, berriz hartuko dugu erreferentzia nagusitzat 35 lagunek osatutako unibertso osoa.

Has gaitezen **Uler-saio**en garapen egoki baterako ezinbestekoa den aldagai batekin:

ASISTENTZIA

Azkenean A1 proba gainditu dutenek asistentzia zertxobait hobe izan dute, batez beste, proba gainditu ez dutenek baino. Bien artean, 9 orduko aldea ageri da.

15. taula: Asistentzia (orduak)

	Orduak
A1 proba bukaeran gainditu dutenak	48
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	39

Hasierako ulermen-maila

A1 proba bukaeran gainditu dutenek zein gainditu ez dutenek oso emaitza antzekoak erakusten zituzten hasieran. Lehenengoen puntuazioa (erantzun zuzenen proportzioa) hasierako

proban %29,6 izan zen, eta bigarrengoena %24,6. Bien artean, apenas zegoen 5 puntuko alde. Esan liteke, beraz, bi taldeko kideak, batez beste, gaitasun bertsutik abiatu zirela.


Talde baten eta bestearen bilakaera, ordea, nabarmen desberdina izan da. Azkenean proba gainditu dutenek hasieratik bukaerara 33,7 puntuko aurrerapena egin dute. Gainditu ez dutenek, ordea, dezente aurrerapen txikiagoa egin dute (8,2 puntukoa).

16. taula: A1 entzumen-proban eskuratutako puntuazioak: erantzun zuzenak, ehunekotan

	Hasieran	Bukaeran	Aldea
A1 proba bukaeran gainditu dutenak	29,6	63,3	33,7
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	24,6	32,9	8,2

Hasieratik bukaerara izandako aldaketa modu grafikoan ikus daiteke beheko irudian (2. grafikoa)

2. grafikoa: entzumenean izandako bilakaera



Orain artekoa laburbildurik, esan daiteke lotura nahiko argia adierazten dutela datuek amaieran A1 gainditzearen eta asistentziaren artean. Aitzitik, ikasleen hasierako ulermen-mailarekin (hasieran probetan izaniko puntuazioen arabera neurtuta) ez dute datuek loturarik erakusten, talde batekoek zein bestekoek ia abiapuntu beretik ekin ziotelako ikas-prozesuari.

Ikus dezagun, ordea, ikasleen ezaugarri pertsonalekin loturiko bestelako aldagaiek (adina, sexua, jatorria, ikasketak...) argi pixka bat gehiago eskaintzen ote diguten datu hauen azterketan.

ADINA

Adinari erreparatzen diogunean ikusten dugu batezbeste ia 9 urte gazteagoak direla A1 proba bukaeran gainditu dutenak proba gainditu ez dutenak baino.

Pentsa liteke gazteago izateak eragiten duela prozesu kognitiboak koipeztuagoak izateko garaian. Honek, seguru asko, zertxobait azal litzake talde batekoen eta bestekoen emaitzak. Aldagai honek erakusten du nolabaiteko lotura, guztizkotzat jo ezin baitaiteke ere.

17. taula: Adinaren banaketa taldeka

	Urteak
A1 proba bukaeran gainditu dutenak	36,1
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	45,4

SEXUA

18. taulan erakusten den bezala, emakumeen emaitzak gizonenak baino hobeak izan dira. Joera argia da.

Emakumeetan, gehienek (%75ek) gainditu dute bukaeran A1 proba. Aitzitik, gizonetan, erdiek baino gehiagok (%62,5ek) ez dute proba gainditu.

Aldagai honen lotura emaitzetan guztiz argia eta nabarmena izan da.

18. taula: Sexu banaketa taldeka

	Emakumea	Gizona
A1 proba bukaeran gainditu dutenak	75,0	37,5
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	25,0	62,5
Guztira	100	100

JAIOTERRIA

Datuok 19. taulan daude bilduta.

Hiru joera ikusten dira. Batetik, jatorri espainiarreko gehien-gehienek gainditu dute proba uler-saioak bukatutakoan (%80). Bigarrenik, hegoamerikarren kategoria dugu. Horietan,

gehienek ere gainditu dute proba (%66,7k), baina aurrenekoek baino proportzio txikiagotan. Hirugarrenik, afrikarren kategoria ageri zaigu. Hemen joera aldatzen da: gehiago dira proba gainditu ez dutenak (%55,6) proba gainditu dutenak baino (%44,4).

Parte hartzaileen hizkuntzak azal lezake, behar bada, fenomeno hau. Gogoan eduki behar da **Uler-saioak** metodologiak baduela oinarrizko abiapuntu bat, eta da irakasleak eta ikasleek hizkuntza komun bat eduki behar dutela, besteak beste, ulertutakoaren egiaztapenerako (*ele biko elkarrizketan* gertatu ohi den bezala). Baldintza hau arazorik gabe eman da Espainian eta Hego Amerikan jaiotako ikasleekin. Aldiz, jatorri afrikarreko ikasleekin, ez beti, baina maiz arazoak zeuden gaztelaniaz beren burua ongi adierazteko ere. Eta hori, zalantzarik gabe, gehitutako oztopotzat har daiteke **Uler-saioek** eskatzen duten metodologiarako. Honek zertxobait azal lezake zergatik afrikarren emaitzak, proportzionaliki, beste taldeenak baino txikiagoak izan diren.

19. taula: Jaioterriaren banaketa taldeka

	E.H ⁵	Espainia	Europa ⁶	Hegoam.	Afrika	Asia
A1 proba bukaeran gainditu dutenak		80,0		66,7	44,4	
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak		20,0		33,3	55,6	
Guztira		100		100	100	

IKASKETAK

Azkenik, kontuan hartuko ditugu parte hartzaileen ikasketak, eta horrek proba gainditzearekin ala ez gainditzearekin emaitzetan nolako lotura erakusten duen. Beheko taulan (20. taula) bildu ditugu datu horiek.

Datu horien argitan, antzematen da Bigarren Hezkuntza, Lanbide Hezkuntza eta Unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen joera argia izan dutela proba gainditzeko. Ordea, kontrako joera ikusi da Lehen Hezkuntza ikasketak dituzten pertsonekin, haien joera nagusia izan baita, argi gainera, proba ez gainditzearena.

5 Hobetsi dugu datu hau ez ematea, kategorian honetan pertsona bakarra dagoelako. Kategorian batean pertsona bat bakarra edo oso gutxi dagoenean, oso zaila da datuetan joera argia ikustea. Hala ere, beste kategorietan dauden subjektu kopurua ere ez da oso handia, eta, hortaz, nekez eman dakieke datu hauei balio estatistikoa. Datu hauek modu estatistikoa hertsian baino gehiago modu kualitatiboan irakurri behar dira: iradokitzen diren hipotesien gisa.

6 Kategorian honetan pertsona bakarra egonik, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

Esan daiteke, orduan, neurriren batean bederen, ikasketa maila baxua edukitzea loturik ager-tzen dela probetan emaitza hobekoak ateratzearekin. Aipagarria da, dena den, Unibertsitate ikasketak dituztenek ez dutela emaitzetan proportzio hoberik erakutsi Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Hezkuntza ikasketak dituztenek baino.

20. taula: Ikasketen banaketa taldeka

	Ikask. ez ⁷	Lehen hezk.	Bigarren hezk.	Lanbide hezk.	Unib.
A1 proba bukaeran gainditu dutenak		20,0	75,0	100	66,7
A1 proba bukaeran gainditu EZ dutenak		80,0	25,0	0,0	33,3
Guztira		100	100	100	100

8.4.- A2 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak

8.3 atalean A1 proban oinarrituta egin dugun azterketaren antzera egin genezake A2 proban oinarrituta ere, eta aztertu bestelako aldagaiek nolako loturak erakusten dituzten emaitzekin.

Hala eta guztiz ere, ez dugu azterketa hori xehe-xehe egingo aurrekoan egin dugun bezala, zeren, ñabardurak ñabardura, funtsean bietan joera bertsuak ikusten baititugu. Hala ere, da-tuak hiru taulatan aurkezten ditugu (21., 22. eta 23. taulak), datuak xehetasunekin aztertu nahi dituztenek eskura izan ditzaten.

21. taula: A2 proba (asistentzia, probaren emaitzak, adina)

	Asistentzia	A2 probako emaitzak			Adina
	(orduak)	Hasieran (%)	Bukaeran (%)	Aldea	(urteak)
A2 proba bukaeran gainditu dutenak	47,4	36,8	71,7	34,9	40,6
A2 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	42,3	20,3	30,3	10,0	42,3

7 Kategoria honetan bi pertsona baino ez direnez, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

22. taula: A2 proba (sexua, jaioterria)

	Sexua		Jaioterria					
	Emak.	Giz.	E.H. ⁸	Esp.	Eur. ⁹	H. Am.	Afr.	As ¹⁰ .
A2 proba bukaeran gainditu dutenak	66,7	36,4		75,0		54,5	22,2	
A2 proba bukaeran gainditu EZ dutenak	33,3	63,6		25,0		45,5	77,8	
Guztira	100	100		100		100	100	

23. taula: A2 proba (ikasketak)

	Ikasketak				
	Ikas. ez ¹¹	L.H.	B.H.	Lan. H.	Unib.
A2 proba bukaeran gainditu dutenak		40,0	55,6	83,3	60,0
A2 proba bukaeran gainditu EZ dutenak		60,0	44,4	16,7	40,0
Guztira		100	100	100	100

9.

HAUTEMATE ETA JARRERARI BURUZKO DATUAK

Uler-saioak hasi berritan bezala haiek bukatzean ere galdetegi bana pasa genien parte hartzaileei, haien uste edo hautemateak ezagutu nahirik.

Galdetegiaren arreta kaleko edo lantokiko harremanetan zegoen jarrita. Halako harremanetan solaskideek euskaraz egingo balute, parte hartzaileek jasotzaile gisa zein jarrera izango luketen, eta ulertzeko zein gaitasun, ustez, izango luketen jakin nahi genuen.

8 Kategoria honetan pertsona bakarra dagoenez, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

9 Kategoria honetan bi pertsona baino ez direnez, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

10 Kategoria honetan pertsona bakarra dagoenez, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

11 Kategoria honetan bi pertsona baino ez direnez, hobetsi dugu datu proportzionalik ez ematea.

Bi komunikazio-egoera aurkezten genituen. Lehenean, solaskideek, euskaraz aritzerakoan, ez lukete inongo ahaleginik egingo beren hizkera errazteko edo egokitzeko, eta, ondorioz, ohiko abiaduran eta hizkera arruntekin ariko lirateke. Bigarren egoeran, aldiz, solaskideek ahalegina egingo lukete beren hizkera errazteko, moldatzeko edo egokitzeko, eta bai abiadura zertxobait moteltzeko ere.

Jarraian, haren inguruko datuak aztertuko ditugu. Lehendabizi, gure unibertso osoa (hots, 35 lagunek osatutakoa) hartuko dugu aintzat, ikuspegirik orokorra eskaintzeko asmoz. Bigarrenik, xeheago aztertu ditugu bi azpimultzo: **Uler-saioak** bukatutakoan A1 proba gainditu dutenak eta proba gainditu ez dutenak. Bi azpimultzo horiek dagoeneko hartu ditugu erreferentzia nagusitzat entzumen-probetan oinarritutako emaitzak aztertzerakoan. Orain gauza bera egingo dugu, galdetegia oinarritzat hartuta. Hirugarrenik, beste sailkapen bat egingo dugu, bestelako bi azpimultzo berezita. Izan ere, erreferentziatzat hartuko ditugu **Uler-saioak** bukatutakoan A2 proba gainditu duten eta gainditu ez duten parte hartzaileak, eta haiek galdetegian emandako erantzunak aztertuko ditugu.

5. eranskinean kontsulta litezke hautemate eta jarrerari buruzko datu hauek lortzeko ikasleek betetako galdetegiak. Galdetegi hauekin lorturiko datuok, dena den, nahiko modu orientatiboan irakurri behar dira, kontuan hartuta ikasleei galdetzen zaiela balizko egoera bati buruz, eta ez beren esperentziaz ongi ezagutzen duten egoeren gainean.

9.1.- Unibertso osoa

Azterketa honetan, datuok 0-100 eskala batean aurkezten dira¹². Irakurketa egokia egiteko, kontuan hartu behar da 0,0 puntuazioak adierazten duela baloraziorik baxuena, ulermenaren aldagaian “ezer ez” ulertzea, eta jarreraren aldagaian “batere gogorik ez” edukitzea. Aitzitik, 100 puntuazioak bestelakoa adierazten du, hau da, ulermenaren aldagaian “dena” ulertzea, eta jarreraren aldagaian “erabateko gogo” edukitzea. Bi mutur horien artean ageri diren puntuazioak parte hartzaileen balorazioak dira bai norbere ulermenaz bai norbere jarreraz.

ULERMENA

Hasieran, oso balorazio txikia egiten zuten parte hartzaileek euskal hiztunak ulertzeko zuten gaitasunaz, baldin 1. komunikazio-egoeran ariko balira (solaskideak euskaraz azkar eta modu arruntean egiten duenean). **Uler-saioak** bukatzerakoan, ordea, ematen du zertxobait hobeto ulertu uste zutela. Hasieratik bukaerara, 20 puntuko aldea sumatzen da.

¹² Galdetegian ikasleei beren erantzunak 0-10 eskala batean emateko eskatu zitzaizkien. Aurkezpen honi begira, ordea, datuak 0-100 eskala batera pasa ditugu, datuen irakurketa lan osoan zehar ahalik eta berdintsuena izan dadin.

Balorazioak zertxobait gora egiten zuen 2. komunikazio-egoeran aritzea kontenplazten zenean (solaskideak euskaraz mantso eta modu errazean egiten duenean). **Uler-saioak** bukatzerakoan, ordea, 31 puntutan hobetu zen beren autopertzepzioa 2. komunikazio-egoeran euskara ulertzeko ustez zeukaten gaitasunaz. Aurrerapen aipagarria, inondik inora.

24. taula: Ustezko ulermena kaleko harremanetan

	Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	11	31	20
2. komunikazio-egoera	18	49	31

JARRERA

Aski jarrera irekia zeukaten jada hasieratik bertatik jendeak beraiei euskaraz egitea nahi ote zuten galdetu zitzaienean. Eskalako erdibideko balorazioak eman zituzten bai 1. komunikazio-egoerarekiko (45 puntu) bai 2. komunikazio-egoerarekiko ere (53 puntu). **Uler-saioak** bukatzerakoan, zertxobait gora egin dute, asko ez bada ere. Funtsean, jarraitzen dute hasieran zeukaten jarrera bertsuarekin.

25. taula: Kaleko harremanetan euskarazko elkarrizketak izatearekiko jarrera

	Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	45	51	6
2. komunikazio-egoera	53	64	11

9.2.- A1 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak

ULERMENA

Bi azpimultzo hauek alderatzen ditugunean, gehien nabarmentzen den datua da "gainditu dutenek" nola aldatu duten beren autopertzepzioa ulermenari dagokionez solaskideak euskaraz mantso eta modu errazean egiten duenean (2. komunikazio-egoera). Horren harira, "A1 gainditu dutenek" hasieratik bukaerara askoz ere bilakaera bizkorragoa egin dute (36 puntukoa) "A1 gainditu ez dutenek" baino (19 puntukoa).

26. taula: Ustezko ulermena kaleko harremanetan, taldeka (A1 gainditu/ez gainditu)

		Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	A1 gainditu dutenak	8	29	21
	A1 gainditu EZ dutenak	10	25	15
2. komunikazio-egoera	A1 gainditu dutenak	14	50	36
	A1 gainditu EZ dutenak	17	36	19

JARRERA

Ez da bi azpitaldeen artean alde nabarmenik ikusten beren jarrera aztertzen dugunean. Biek ala biek erdibideko balorazio batetik abiatzen dira, eta prozesuan zehar beren balorazioa zertxobait goratzen badute ere, funtsean hasierako joera berari eusten diote bukaeran ere.

27. taula: Kaleko harremanetan euskarazko elkarrizketak izatearekiko jarrera, taldeka (A1 gainditu/ez gainditu)

		Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	A1 gainditu dutenak	42	46	4
	A1 gainditu EZ dutenak	40	45	5
2. komunikazio-egoera	A1 gainditu dutenak	51	58	7
	A1 gainditu EZ dutenak	53	64	11

9.3.- A2 proba gainditu dutenak eta gainditu ez dutenak

ULERMENA

Argi ikusten da "A2 gainditu dutenek" bukaeran handitu dutela beren gaitasunarekiko (ulermenarekiko) autopertzepzioa, neurri handiagoan "A2 gainditu ez dutenek" baino. Eta alde hori ikusten da bai 1. komunikazio-egoeran bai 2. komunikazio-egoeran.

28. taula: Ustezko ulermena kaleko harremanetan, taldeka (A2 gainditu/ez gainditu)

		Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	A2 gainditu dutenak	14	37	23
	A2 gainditu EZ dutenak	8	18	10
2. komunikazio-egoera	A2 gainditu dutenak	20	53	33
	A2 gainditu EZ dutenak	18	37	19

JARRERA

Hemen ere argi ikusten da bi azpimultzoek duten jokabide desberdina. "A2 gainditu dutenek" bi komunikazio-egoeretan aritzeko gogoia handitu dute, aldea oso handia ez bada ere. Berriz, "A2 gainditu ez dutenek" bere horretan eusten diote hasieran zeukaten gogo bertsuari.

29. taula: Kaleko harremanetan euskarazko elkarrizketak izatearekiko jarrera, taldeka (A2 gainditu/ez gainditu)

		Hasieran	Bukaeran	Aldea
1. komunikazio-egoera	A2 gainditu dutenak	49	62	13
	A2 gainditu EZ dutenak	42	40	-2
2. komunikazio-egoera	A2 gainditu dutenak	45	61	16
	A2 gainditu EZ dutenak	62	61	-1

10. ONDORIOAK

Bi azpi-ataletan banatuko dugu ondorioen atal hau; lehenik ikerketa mailan nabarmentzekoak diren ondorioak zerrendatuko ditugu, eta jarraian **Uler-saioak metodologiaren** esperientzien antolaketarekin, edo metodologia testatzearekin loturikoak.

10.1.- Ikerketa mailako ondorioak

- 1) Ikerketa honen helburu nagusia zen testatzea zenbateko aurrerapena egiten duten ahozkoaren ulermenean euskaraz oso gutxi edo batere ere ulertzen ez duten pertsonen, **Uler-saioak metodologian** 60 orduz aritu ondoren.

Orokorrean, esango genuke neurtu ahal izan dugun aurrerapena nahiko nabarmena izan dela. Datuek diotenez, **Uler-saio**etara etorritakoan, A1 entzumen-proba gainditzen ez zuten parte hartzaileen %64,2k lortu du proba bera gainditzea **Uler-saioak** bukatutakoan. Eta A2 entzumen-proba gainditzen ez zuten parte hartzaileen %56,2k lortu du proba bera gainditzea **uler-saioak** bukatutakoan.

A1 proba gainditu duten pertsonen hasieratik bukaerara 33,7 puntuko aurrerapena egin dute (erantzun zuzenen proportzioan), eta A2 proba gainditu dutenek 34,9 puntukoa.

Kontuan hartzekoa da, programaturiko Uler-saioak 60 ordukoak ziren arren, emaitza hauek lortu direla 46 orduko batez besteko asistentzia batekin.

Bestalde, kontuan hartzekoak dira ahozko ulermena neurtzeko A1 eta A2 entzumen-probekin bereizketa mailan sumaturiko mugak eta gora-beherak (ikus 8.1 atala). Hori kontuan izanik esango genuke neurturiko aurrerapen hauek erreferentzia mailan soilik hartzea komeni dela.

- 2) Ikasleek ulermenean eginiko aurrerapen horiek beste aldagai batzuekin erakusten duten lotura aztertuta, antzematen da emaitza hobekien lortu dituztenek honako ezaugarri hauek dituztela: hasteko, ulergarria den moduan, asistentzia altuagoa izan dute. Horrez gain, emakumeen proportzioa nagusitzen da oso nabarmen, adinez gazteagoak dira, gure testuinguru sozial-kultural eta linguistikotik gertuagokoak dira, eta ez dituzte ikasketa mailarik oinarritzkoenak. Aldagai horietako bakoitzak badu nolabaiteko lotura ulermenean aurrerapen handiagoa egin izanarekin.
- 3) Ikerketaren bigarren helburu gisa genuen neurtzea parte hartzaileen autopertzepzioa eta jarrera euskarazko harreman errealean aritzeko.

Laburbildurik, ikusten da **Uler-saioak** hasterako dagoeneko bazutela parte hartzaileek egoera errealetan euskarazko komunikazioan murgiltzeko gogoia edo jarrera irekia. Motibazio hori ez da galdu, eta bai pixka bat finkatu edo sendotu. Aldaketa nabarmena, ordea, etorri da beren gaitasunaz (entzumenaz) zuten autopertzepzioaren aldetik. Euskarazko harremanetan murgiltzeko gogoia eduki arren, ez zuten beren burua gauza sentitzen, gaitasunez, horretarako. **Uler-saioak** bukatutakoan, ordea, 20 puntu handitu da beren autopertzepzio linguistikoa (entzumenaz) euskaraz azkar eta modu arruntean hitz egiten duten solaskideekin aritzerakoan, eta 31 puntu egin du aurrera autopertzepzio horrek euskaraz mantso eta modu errazean hitz egiten duten solaskideekin jarduterakoan.

Datu hauek, dena den, modu orientatiboan edo hurbilpen gisa ulertu behar dira, kontuan hartuta ikasleei balizko egoera bati buruz galdetu diegula.

10.2.- Metodologia testatzearekin loturiko ondorioak

- 1) Baja kopurua aipagarria izan da: hasitakoetatik %29,1ek ez du prozesua bukatu, eta uneren batean, lehenengo asteetan gehienetan, utzi dute esperientzia. Kopuru altua da hori, eta beraz muga garrantzitsua metodologia testatzeko garaian.

Arrazoi ezberdin asko egon litezke baja horien atzean. Aipatzekoa iruditzen zaigu horien artean esperientzietan parte hartu duten ikasleen profilarrena. Ikaslerik gehienak etorkinak izan dira eta kasu askotan lan ezegonkor eta prekarioetan zebiltzanak. Halako baldintzetan, lanaren eraginez sorturiko ezusteek muga handiak ekarri ahal izan dituzte saioekin jarraitzeko.

- 2) Ikasleei **Uler-saioak** ematen aritu diren irakasleek esperientzien aurretik jaso dute metodologia honen gaineko formazioa, haien interesa eta ilusioa lagun. Lehen aldian zen, dena den, formazio hori ematen genuena, eta sumatu ditugu horretan hutsuneak edo aurrera begira sendotu beharreko gaiak (ikus 3. atala). Metodologia testatzearen eta ikasleengan loturiko emaitzak baloratzeko garaian kontuan hartu beharrekoa da irakasleek metodologia berri honetan aritzeko zuten formazio eta eskarmentu (oso) mugatu hau.

11.

AURRERA BEGIRAKOAK ETA HOBETZEKOAK

- 1) Ikerketan erabili ditugun A1 eta A2 entzumen-proben inguruko ikerketa osagarriak egitea komenigarria izan liteke. Lanean aipatu dugunez, parte hartzaileen %25,7k hobeto puntuatu ditu A2 proban A1 proban baino, eta %31,4k berdintsu puntuatu ditu bata zein bestea. Horrek adieraziko luke probek ez dutela ongi bereizten maila bakoitzean eskatzen den zailtasun maila. Honek azterketa berezia beharko luke, ondorioz, ebaluazio tresnak doitze aldera.

Era berean, egokia izango litzateke bestelako erreferentziak hartzea ebaluazio-tresna hauek erabilia ohiko euskalduntze-alfabetatze ikasleen artean, azterketa konparatiboak egin ahal izateko.

- 2) Ahalegin handia eskatu du Aldahitz Ikerketako taldearentzat eta prozesu honetan lankide izan ditugun kide askorentzat esperientzia hauek antolatzeak eta haien gaineko ikerketa egiteak. Metodologia aplikatu, testatu eta ematen dituen emaitzak baloratze aldetik, nolahi ere, lehen urrats gisa hartu behar dugu. Beharrezkoa da, alde horretatik, esperientzia gehiago egitea, oinarri empirikoa zabaltze aldera. Joerak ikusteko ez da egoki kopuru txikiarekin ibiltzea, datuen aldakortasuna oso handia izaten baita halakoetan. Esperientzia hauekin 35 laguneko unibertso bat osatu ahal izan dugu azterketarako. Aurrerapen handia da hori. Baina beharrezkoa da oinarri empiriko hori handitzen jarraitzea metodologiak ematen dituen emaitzak baloratu ahal izateko.

- 3) Etorriko diren esperientzia horiei begira, honako hobetzeko hauek nabarmenduko genituzke:

Aurrena, handitu beharko lirateke lan-munduko esperientzien kopurua. Orain artean, tankera horretako esperientzia bakarra egin da Azti enpresan (Pasaia), eta, gure ustez, areagotu beharko lirateke horrelakoak. Halako esperientziak lotuta baitaude, besteak beste, hainbat erakundetan abian diren hizkuntza plangintzekin, edota Euskaraldiaren "arigunee" inguruan sortzen diren dinamikekin.

2020-2021 esperientzia hauetan azterturiko taldeetako ikasle-profil nagusia etorkinena izan da. Datozen urteetan antola ditzakegun esperientzietan, komeni da gure gizartean euskara batere ez dakiten edo oso gutxi ulertzen duten profil ezberdinetako ikasleekin probak egitea.


Bigarrenik, hobetu beharko litzateke irakasleak prestatzeko eta jarraipena egiteko sistema. Pandemiaren eraginez online bidezko erabili behar izan genuen irakasleak prestatzeko, eta baita jarraipena egiteko ere. Modu horiek sakonki berrikusi beharko lirateke.

Hirugarrenik, atal bat zabaldu beharko litzateke, aurreko puntuarekin lotuta, lanbidez irakasle ez diren pertsonak ere uler-saioetarako trebatzaile gisa prestatzeko. Beharrezkoa da, ikerketa honen testuinguruan, halako pertsonen gaitasuna eta emankortasuna aztertzea ere.

Azkenik, hemendik aurrerako esperientzietan beharrezkoa da ikasleei eskatzea **Uler-saioen** irakasleak ulertzen duen hizkuntza komun baten ezagutza ona izatea, esperientziaren testuinguruaren arabera, gaztelania edo frantsesa.

Aldahitz
ikerketa

ULER-SAIOAK
METODOLOGIA



Eranskinak

12. ERANSKINAK

1. eranskina:

Uler-saioak metodologian formazioa jaso duten kideen zerrenda
(kideak – erakundeak – herriak)

	Lankidea	Erakundea	Herria
1	Aitor Puy Arrieta	Udal Euskaltegia	Eibar
2	Alex Labaien	Udal Euskaltegia	Bergara
3	Idoia Bengoetxea	AEK Euskaltegia	Andoain
4	Imanol	Udal Euskaltegia	Azpeitia
5	Itxaso Vazquez	Artez	Bilbo
6	Itziar Garitagoitia	Udal Euskaltegia	Eibar
7	Itziar Larrañaga Arizaga	Udal Euskaltegia	Oñati
8	Izaskun Sagastume	Udal Euskaltegia	Pasaia
9	Izaskun Urrestarazu	Euskara Elkartea	Ibarra
10	Karmele Agirregabiria (+ 3 lankide gehiago)	Udal Euskaltegia	Eskoriatza
11	Kepa Urbieto	Udal Euskaltegia	Azpeitia
12	Leire Otxotorena Iriarte	Euskara Zerbitzua	Lasarte-Oria
13	Maore Escudero Montes	Gureak Fundazioa	Erresteria
14	Nerea Alzelai	Udal Euskaltegia	Bergara
15	Oihana Lado	AEK Euskaltegia	Soraluze
16	Oihane Uitzu Abarquero	Euskara Zerbitzua	Andoain
17	Raul Perez	AEK Euskaltegia	Pasaia
18	Udane Migeltorena	AEK Euskaltegia	Pasaia

2. eranskina:

Esperientzien antolaketan sorturiko zalantzak eta erantzunak

1.- *Ikasleek gaztelaniaz ere ez badakite parte har dezakete uler-saioetan?*

Puntu hau zaila da. Egia da horrelako tipologia egon badagoela eta erantzunen bat behar-ko duela. Baina gure metodologia (**Uler-saioak** eta ulerrizketa babestua) une honetan ez dago oraindik tipologia horretarako ongi egokitua. **Uler-saioetako** metodologiak eskatzen du irakasleek eta ikasleek hizkuntzaren bat konpartitzea (normalean gaztelania), ele biko elkarrizketak egin ahal izateko, irakasleak etengabe egiazta dezan ea ikasleak ongi ulertzen ari diren. Eta hori ez da posible ikasleak gaztelaniaz ere ez dakienean.

Beraz, ikerketaren fase honetan kanpo utziko genituzke horrelako ikasleak (aurreragoko fase batzuetan kontuan hartu beharko diren arren).

2.- *Eta ikasleak analfabetoak badira parte har dezakete?*

Aurreko galderari emandako erantzun antzekoa eman daiteke hemen ere: haiei begirako zerbait prestatu eta egokitu beharko da, baina ikerketaren fase honetan metodologiak ez daude prestatuta honelako pertsonentzat.

Saioetan zehar ikasleek hainbatetan irakurri beharko dituzte arbelean idatzitako esaldiak, edo txarteletan adierazitakoak edota frogetan idatzitako galdera eta balizko erantzunak. Analfabetoak izanik, ezin diete horrelakoei heldu.

Metodologiaren egingarritasuna egiaztatzen ari garen une honetan ez zaigu komeni horrelako zailtasunak gehitzea esperimentazioari, nahiz eta aurrerantzean, ikerketaren aurreragoko fase batzuetan, arazo honi ere arreta jarri beharko zaion.

Beraz, ikerketaren fase honetan kanpo utziko genituzke horrelako ikasleak.

3.- *Malgutasunari buruz. Batzuetan ikasleak ezin izango dira saio guztietara joan, hori arazoa al da?*

Bai, hori arazoa da, eta handia gainera. 60 orduetara ekarri ditugu programazioak, oso denbora laburrera alegia, eta dena oso doitu eta neurtua dago. Ondorioz, saioa batzuk galduz gero, asko galtzen dute ikasleek, eta gero eta zailago egiten zaie erritmoari eustea. Hain metodologia doitu izanik, ez dago tarte handirik galdutakoa berreskuratzeko.

Metodologiaren arrakasta lotuta dago asistentzia altu batekin (%80ren ingurukoa). Beraz, aurretik ikusten bada ikasleek asistentziarekin arazo nabarmenak eduki ditzaketela, hobe da haiek kanpo uztea ikerketaren fase honetan.

4.- *Ikasleek zerbait ordaindu beharko dute?*

Ez.

Ikerketa batean parte hartzeko gonbitea egiten zaie. Eta beraz, eskerrak eman behar zaizkie beren prestutasunagatik.

Zerbait kobratzekotan, zerbitzu gisa ulertu beharko litzateke eta eskainitakoak egiaztatuta izan behar luke. Gure metodologia oraindik ez dago egiaztatuta, egiaztatze fasean dago (ikerketa fasean), eta oraindik ezin da zerbitzu gisa irudikatu edo eskaini.

5.- *Sektore edo soslai desberdinetako ikasleak batu daitezke talde berean?*

Zentzuzkoena da esparru jakin batzuk gogoan hartu (merkatariak, gurasoak, enpresa bategoak...) eta haietan taldeak osatzea. Haren onurak begi bistakoak dira, bereziki alderdi soziolinguistikoan.

Hala ere, talde berean esparru desberdinetako kideak elkartu behar izanez gero, ez litzateke kalte berezirik gertatuko. Zeren, une honetan, bereziki entzumenari lotutako metodologia bera testatzen ari baikara, eta ez hainbeste metodologiak esparru bakoitzean duen eragin zehatza.

6.- *Uler saioetan dabiltzan ikasleek jauzia egin dezakete gero Ulerrizketa babestura?*

Ikerketan gabiltzala gogoan hartu behar da, eta ikerketa galdera bat da hain zuzen ere ea zenbat aurrera dezaketen ikasleek ulermenean 60 ordutan uler saioen kasuan eta beste 60 ordutan *Ulerrizketa babestuaren* kasuan. Ikerketak berak emango dizkigu bukaeran galdera hau erantzuteko behar ditugun datuak. Baina, oraingoz eta hipotesi gisa, esan dezakegu ikusten ari garela **Uler-saio**etan dabiltzan ikasleak A0 inguruan abiatu eta A2raino iristen direla. Hala balitz, ez dirudi arazorik legokeenik **Uler-saio**etatik datozen ikasle horiek jarraian ulerrizketa babestuetan sar daitezzen eta B1 ulermenerako tartea egin dezaten.

7.- *Nola egin daiteke ikasleen ulermen maila ezagutzeko? Ba al dago eredu estandarrik?*

Ikasle guzti-guztiek A1 mailako entzumen-proba egin beharko dute irailean, esperientzietan hasi baino lehen.

Proba hori estandarra da eta HABEk berak argitaratuta du Ikasbil gunean. Bost entzungai ditu eta erantzun beharreko galdera batzuk. Proba hori guztioi helaraziko dizuegu irailan, eta zuen ardura izango da ikasleei proba pasaraztea (irakaslearen edo teknikariaren bidez). Honi lotutako xehetasunak aurrerago emango dizkizuegu, garaia hurbildu ahala.

Proba hori gainditzen EZ dutenek aukera izango dute **Uler-saio**etan parte hartzeko. Baina proba gainditzen badute, orduan ezin izango dute **Uler-saio**etan parte hartu, eta gonbitea egingo zaie otsailean hasiko diren **Ulerrizketa babestuko** saioetan parte hartzeko.

Beraz, proba horrek erabakiko du zein ikaslek hartuko dute parte uler-saioetan eta zeintzuk ulerrizketa babestuan.

8.- *Nolakoa izango da irakasleen formazioa?*

Irailaren 13tik 25era bitartean izango da eta on line.

Parte hartzaileek eskura izango dituzte hiru osagai didaktiko:

- 1) Bi orduko bideo bat, funtsezko azalpen guztiak ematen dituena
- 2) Bideo laburrago batzuk, teknika didaktikoak modu praktikoan erakusten dituztenak
- 3) Pdf txosten bat, egunez eguneko programazioa biltzen duena.

Parte hartzaileek etxean ikusi eta irakurri beharko dituzte material hauek guztiak, nahi edo behar adina aldiz. Ondoren, euren zalantza guztiak idatziz bildu eta formatzaileoi bidaliko dizkigute. Ondoren, parte hartzaile bakoitzarekin on line bidezko tutoriala egingo dugu formatzaileok, norberaren zalantzak eta galderak argitzearen aldera.

Azkenean, parte hartzaileek (irakasleek edo teknikariek) eskoletan hasi eta euren jardunarekin grabazio batzuk egin beharko dituzte eta formatzaileoi bidali. Grabaketok aztertzeko beste on line bidezko tutoretza saio individualizatua egingo dugu.

9.- *Laburki azal al daiteke nolakoa litzatekeen metodologia bakoitzaren dinamika?*

Uler-saioei dagokionez, hiru dira jardun nagusiak:

- 1) Agindu-ekintza dinamika: Bereziki lehenengo ordutan, irakasleak agindu sinpleak luzatuko dizkie ikasleei (ekarri boligrafoa, utzi boligrafoa mahai gainean, joan lehiora...), eta ikasleak aginduak ulertu ahala bete beharko dituzte. Aginduen zailtasuna gora doa ikasleen ulermena hobetzeaz batera.
- 2) Gidoiak eta galde-erantzuna dinamika: Irakasleak istorio laburrak aurkeztu eta ulertarazi ondoren, galde-erantzun jokoari lotzen zaio ikasleen ulermen maila zabaltzeko.
- 3) Kontaketa dinamika: Irakasleak albisteak hartzen ditu (prentsatik normalean) eta modu erraza eta ulergarrian kontaktzen dizkie ikasleei. Albisteez gain, bideoak erabiltzen dira istorioak kontatzeko. Bideoei ahotsa kentzen zaie, eta irudi hutsetan oinarrituta irakasleak kontaktzen du bertan gertatzen ari dena.

Ulerrizketa babestuari dagokionez, bi dira jardun nagusiak:

- 1) Kontaketa dinamika: **Uler-saio**etan bezala, oraingoan ere irakasleak albisteak hartzen ditu (prentsatik normalean) eta modu erraza eta ulergarrian kontaktzen dizkie ikasleei. Albisteez gain, bideoa erabiltzen dira istorioak kontatzeko. Bideoei ahotsa kentzen zaie, eta irudi hutsetan oinarrituta irakasleak kontaktzen du bertan gertatzen ari dena. Ikasleen ulermena hobetzeaz batera, gora egiten du irakasleak darabilen hizkera mota eta albisteen eta istorioen konplexutasuna.
- 2) Konpetentzia sozialetarako prestakuntza: ulerrizketa babestuaren bukaera aldeira gonbitea zabaltzen zaie ikasleen inguruko lagun, ezagun edo lankide euskaldunei saioetan parte hartzeko. Dinamika berezia zabaltzen da euskaldun horiek ikus eta ikas dezaten ulerrizketa komunikazio estiloa (ele biko elkarrizketa, hizkera ulergarria erabiltzea, hizkuntza malgutasunez erabiltzea...), eta aukera egon dadin euskarazko komunikazioa kalean eta egoera naturaletan ere erabil dezaten.

10.- Kontuan hartu beharreko hainbat data:

- 1) Uztailak 9

Ordurako, eskatzen zaio eragile bakoitzari informetxo bat (orrialde bat edo) bidaltzeko ikertzaileoi azalduz une horretan noraino iritsi zireten esperientzien zehaztapenean (zein talde izan daitezkeen zehaztu, hainbat kolektiborekin hitz egin ote den, euskaltegiekin hitz egin oten den eta abar).

Helburua da udako atsedena baino lehen esperientziak ahalik eta gehien zehaztuta edukitzea, eta azken ukituak irailerako uztea.

Bitarte horretan, eragileok harremanetan jar daitezke Pellorekin edozein zalantza argitzeko edo behar denean laguntza eskatzeko.

2) Irailak 13

Orduan emango diogu hasiera irakasle eta teknikarientzako formazioari. Bi aste izango ditugu prozesu hori burutzeko. Beraz, 13an hasi eta 25era bitartean garatuko da.

3) Irailak 24

Data horretarako jada finkaturik egon behar da zenbat talde ariko diren eta zeintzuk izango diren ikasleak (izen-abizenarekin). Horrek esan nahi du data hori baino lehen pertsona horiek jada egina dutela A1 mailako entzumen-proba. Proba hau herri eta enpresa bakoitzean bideratuko dute bertako antolatzaileek (edo haien izenean bertako irakasleek eta teknikariek), eta datuak ikertzaileei bidaliko zaizkie.

4) Urriak 4

Aste horretan (urriak 4-10) hasiko dira toki guztietan **Uler-saioak**. 15 astez iraungo dute. Bukatzeko data: otsailaren lehen astea.

3. eranskina:

A1 entzumen-proba

A1 MAILA

PRUEBA DE EVALUACIÓN

ENTZUMENA¹³

En esta prueba escucharás cinco grabaciones diferentes:

1. “Miren en el médico”
2. “Grupo de teatro”
3. “Jabón natural”
4. “Conversaciones”
5. “Receta de bizcocho”

En total, dispondrás de 50 minutos para realizar los cinco ejercicios.

1. “Miren en el médico”

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación “Miren en el médico” y responde a las cinco preguntas que encontrarás

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las preguntas y las posibles respuestas.
- Escucharás dos veces la grabación “Miren en el médico”.
- Por último, dispondrás de cinco minutos para elegir la respuesta que te parezca apropiada a cada pregunta y colocarla en la tabla.

1. ¿Por qué ha ido Miren al médico?

- A. Porque le duele la pierna.
- B. Porque le duele la rodilla.
- C. Porque le duelen los oídos.

2. ¿Sabe Miren quién es el médico que le corresponde?

- A. Sí, porque va con frecuencia.
- B. No, no se acuerda.
- C. Sí, es el doctor Olano.

3. ¿Cuándo le atenderá el médico?

- A. A las 10:00.
- B. A las 08:00.
- C. A las 11:00.

4. ¿Quién le ha dado la cita?

- A. La enfermera o enfermero.
- B. El personal de recepción.
- C. El médico.

5. ¿Ha conseguido Miren que le dieran cita?

- A. No.
- B. Sí, con su médico habitual.
- C. Sí, pero con otro médico.

ESCRIBE LAS RESPUESTAS EN LA TABLA

1	2	3	4	5

2. “Grupo de teatro”

CONTEXTO:

Eider ha empezado a ensayar en un grupo de teatro. En el camino al ensayo se ha encontrado con Mikel y mantienen una conversación.

ACTIVIDAD:

Escucha la conversación “Grupo de teatro” y relaciona el nombre de cada persona con sus características.

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las características que tienes que asociar con cada persona.
- Escucharás dos veces la grabación “Grupo de teatro”.
- Por último, dispondrás de cinco minutos para elegir las respuestas que te parezcan apropiadas y colocarlas en la tabla.

CARACTERISTICAS:

- A) Quiere ser actor o actora
- B) Está al lado de Eider
- C) Está riendo
- D) Es una persona tímida
- E) Quiere ser médico o médica
- F) Tiene el pelo de color rojizo
- G) Disfruta mucho haciendo teatro

PERSONA	CARACTERISTICA
Eider	
Mikel	
Amaia	
Jone	
Oier	
Maren	
Uxue	

3. “Jabón natural”

CONTEXTO

Eider quiere aprender a hacer jabón natural. De camino al cursillo se ha encontrado con Jon y mantienen una conversación sobre el tema.

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación “Jabón natural” y responde a las cinco preguntas que encontrarás

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las preguntas y las posibles respuestas.
- Escucharás dos veces la grabación “Jabón natural”.
- Por último, dispondrás de cinco minutos para elegir la respuesta que te parezca apropiada a cada pregunta y colocarla en la tabla.

1. ¿Por qué va corriendo Eider?

- A. Porque es saludable.
- B. Porque el cursillo va a empezar enseguida.
- C. Porque tiene que comprar jabón.

2. ¿Qué duración tiene el cursillo?

- A. 10 minutos.
- B. 3 horas.
- C. 2 horas.

3. ¿Quién tiene que llevar los componentes?

- A. Cada persona tiene que llevar sus propios componentes.
- B. Los organizadores aportarán los componentes.
- C. Algunos componentes los llevarán los participantes y otros los pondrán los organizadores.

4. ¿Qué componentes usarán para hacer jabón?

- A. Agua destilada, soda cáustica y jabón de cocina.
- B. Aceite de cocina, utensilios metálicos y agua destilada.
- C. Soda cáustica, agua destilada y aceite usado.

5. ¿Por qué es necesario ponerse gafas?

- A. Porque la soda cáustica es peligrosa.
- B. Porque el agua destilada produce dolor en los ojos.
- C. Para que no entre el aceite de cocina en los ojos.

ESCRIBE LAS RESPUESTAS EN LA TABLA

1	2	3	4	5

4. “Conversaciones”

CONTEXTO

Escucharás cinco conversaciones cortas entre dos personas.

ACTIVIDAD:

Escucha las conversaciones y responde a las cinco preguntas que encontrarás

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de dos minutos para leer las preguntas y las posibles respuestas.
- Escucharás dos veces cada conversación
- Después de escuchar por segunda vez, elige la respuesta adecuada y colócala en la tabla.

1. conversación: ¿Qué fruta le queda al tendero?

- A. Manzana
- B. Plátano
- C. Pera
- D. Naranja

2. conversación: ¿Qué va a comer el cliente o clienta?

- A. Pescado
- B. Macarrones
- C. Arroz
- D. Carne

3. conversación: ¿Qué tiempo hace?

- A. Lluvioso
- B. Soleado
- C. Nuboso
- D. Ventoso

4. conversación: ¿Qué es lo que más frecuentemente hace en su tiempo libre?

- A. Ir al cine

- B. Escuchar música
- C. Hacer deporte
- D. Leer libros

5. conversación: ¿A qué hora cenan en casa?

- A. A las 21:00
- B. A las 20:30
- C. A las 20:00
- D. A las 22:00

ESCRIBE LAS RESPUESTAS EN LA TABLA

1	2	3	4	5

5. “Receta de bizcocho”

CONTEXTO:

Mikel quiere hacer un bizcocho para celebrar el cumpleaños de su hija Garazi, pero le falta harina y ha decidido pedírsela a una vecina.

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación y responde si son verdaderas o falsas las frases que te ofrecemos

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de un minuto para leer las frases.
- Escucharás dos veces cada grabación.
- Después de escuchar por segunda vez, elige la respuesta adecuada y colócala en la tabla.

FRASE	VERDADERO	FALSO
Mikel hace muchas veces bizcochos	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Garazi cumple mañana los años	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
El bizcocho lo comerán Garazi y sus amigas	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Mikel ha conseguido lo que necesitaba para hacer el bizcocho	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Mikel ha hecho un bizcocho también para Ane	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

4. eranskina:

A2 entzumen-proba

A2 MAILA

PRUEBA DE EVALUACIÓN

ENTZUMENA¹⁴

En esta prueba escucharás cuatro grabaciones diferentes:

1. “Vacaciones”
2. “Mensajes”
3. “Reserva en el hotel”
4. “Consejos”

En total, dispondrás de 40 minutos para realizar los cuatro ejercicios.

¹⁴ Esta prueba replica el modelo presentado por HABE, y publicado en Ikasbil, correspondiente a la prueba de evaluación del nivel A2, con fecha 2018/01/16. En el original los ejercicios son presentados en euskara, aquí, sin embargo, han sido traducidos al castellano

1. “Vacaciones”

CONTEXTO:

Sara e Iban se encuentran en la calle. Iban ha estado de vacaciones en el extranjero y le cuenta a Sara lo que ha visto y vivido.

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación “Vacaciones” y responde a las seis preguntas que encontrarás.

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las preguntas y las posibles respuestas.
- Escucharás dos veces la grabación “Vacaciones”.
- Por último, dispondrás de cinco minutos para elegir la respuesta que te parezca apropiada a cada pregunta y colocarla en la tabla.

1. ¿Qué le ha contado Iban a Sara??

- A. Que llegó ayer a la noche de las vacaciones.
- B. Que ha hecho un viaje de trabajo.
- C. Que no está cansado.

2. ¿Cuánto tiempo ha necesitado para llegar a Australia?

- A. En total, unas 32 horas.
- B. En total, unas 22 horas.
- C. Mucho tiempo, 32 horas en avión.

3. ¿Qué tiempo ha tenido Iban en Australia?

- A. En el norte de Australia mucho calor.
- B. En el sur de Australia mucho calor.
- C. En el norte de Australia mucha lluvia.

4. ¿Qué animales ha visto Iban?

- A. Ha visto canguros. También koalas.
- B. Ha visto canguros, pero no koalas.
- C. Ha visto cocodrilos y tiburones tremendos

5. ¿Qué hay en el desierto de Australia?

- A. Una “barrera de coral”.
- B. Un monte llamado “Uluru”.
- C. Aborígenes que hacen magia.

6. ¿Le ha gustado a Sara lo que le ha contado Iban?

- A. Nada.
- B. Un poco, sí.
- C. Mucho, ella también quiere ir.

ESCRIBE LAS RESPUESTAS EN LA TABLA

1	2	3	4	5	6

2. “Mensajes”

CONTEXTO:

Amaia ha vuelto de vacaciones y tiene seis mensajes en el contestador.

ACTIVIDAD:

Escucha los seis mensajes y relaciona cada mensaje con una frase.

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las frases que te ofrecemos.
- Escucharás dos veces cada uno de los seis mensajes.
- Mientras escuchas los mensajes, vete relacionándolos con las frases.
- Al final, tendrás dos minutos para colocar en la tabla las respuestas que hayas elegido.

ATENCIÓN: Hay una frase que sobra.

FRASES	NÚMERO DEL MENSAJE
Quiere hacerle una visita	
Han llamado para dar una cita	
Ha llamado el médico para cambiar una cita	
Eider le ha invitado a cenar	
Amaia tiene reunión de la ikastola	
Los amigos-as han quedado en la taberna “Haizea”	
La mesa que ha pedido Amaia ha llegado a la tienda	

3. “Reserva en el hotel”

CONTEXTO:

Una persona llama por teléfono para hacer una reserva en un hotel. Escucharás la conversación que mantiene con el personal de recepción.

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación “Reserva en el hotel” y responde a las seis preguntas que encontrarás.

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las preguntas y las posibles respuestas.
- Escucharás dos veces la grabación “Reserva en el hotel”.
- Por último, dispondrás de cinco minutos para elegir la respuesta que te parezca apropiada a cada pregunta y colocarla en la tabla.

1. ¿Hay plazas de aparcamiento en el hotel?

- A. Sí, pero hay que pagar.
- B. No, no tiene plazas de aparcamiento.
- C. El hotel tiene plazas gratuitas de aparcamiento.

2. ¿Para cuántas personas ha hecho la reserva?

- A. Para una persona.
- B. Para dos personas.
- C. Para tres personas.

3. ¿Qué se ve desde la habitación que ha reservado?

- A. El mar.
- B. La piscina.
- C. El aparcamiento.

4. ¿Para cuándo ha hecho las reservas?

- A. Para el sábado y el domingo.
- B. Para el viernes y el domingo.
- C. Para el viernes y el sábado.

5. ¿Dónde van a aparcar el coche?

- A. En el hotel.
- B. En el aparcamiento gratuito.
- C. En la playa.

6. ¿Qué ocurre con el desayuno?

- A. No han reservado desayuno.
- B. Lo han reservado porque merece la pena.
- C. El hotel sólo es para dormir.

ESCRIBE LAS RESPUESTAS EN LA TABLA

1	2	3	4	5	6

4. “Consejos”

CONTEXTO:

Josu es el nuevo compañero de piso de Markel. No conoce todavía Gasteiz, y le ha pedido a Josu algunos consejos para saber dónde comprar las cosas cotidianas.

ACTIVIDAD:

Escucha la grabación “Consejos” y relaciona las frases con las imágenes.

PROCEDIMIENTO:

- Dispones de tres minutos para leer las frases y ver las imágenes que te ofrecemos.
- Escucharás dos veces la grabación “Consejos”.
- Mientras escuchas la grabación, vete relacionando las frases y las imágenes.
- Al final, tendrás dos minutos para colocar en la tabla las respuestas que hayas elegido.

ATENCIÓN: Hay tres imágenes que sobran.

FRASES	NÚMERO DEL MENSAJE
Las hace el padre de Andoni	
En ese lugar compra los huevos	
Markel va a hacer eso esta semana	
Eso lo venden debajo de casa	
¿Dónde hacía antes las compras Josu?	
¿Qué clase de pescado tienen en la pescadería que está al lado del ayuntamiento?	




A



B



C



D




E



F



G



H



I

5. eranskina:

Hautemate eta jarrerari buruzko galdetegia

Responde por favor a las siguientes cuestiones:

Si una persona me habla en euskara a una **velocidad rápida y de una manera normal** para hablar...

	Yo creo que le entendería...
Del tiempo	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema laboral	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema cultural	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema político	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema deportivo	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema social	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema personal	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
Para contarme algo gracioso	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
Para preguntarme por una dirección	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)

Si una persona me habla en euskara **despacio y de una manera fácil** para hablar...

	Yo creo que le entendería...
Del tiempo	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema laboral	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema cultural	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema político	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema deportivo	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema social	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
De un tema personal	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
Para contarme algo gracioso	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)
Para preguntarme por una dirección	(nada)0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10(todo)


Si la gente me habla despacio y de manera fácil, me gustaría que me hablaran en euskara en el trabajo o en la calle...

(nada) 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 (mucho)

Aunque la gente me hable rápido y de manera normal, me gustaría que me hablaran en euskara en el trabajo o en la calle...

(nada) 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 (mucho)

ESKERRIK ASKO!!!!



Aldahitz ikerketa

**ULER-SAIOAK
METODOLOGIA**

2020-2021 ARTEAN
EGINDAKO ESPERIENTZIEI
BURUZKO AZTERKETA



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea